



## **UKITUAREN ADOSTASUNARI BURUZKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.**

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** Datuak Babesteko Euskal Bulegoan Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzaren idazki bat jaso dugu, Bulegoaren irizpena eskatuz gizarte zerbitzuen arloko adostasun ereduari buruz. Eredua irizpen eskabideari atxikita aurkeztu dute.

**BIGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak xedatzen duenez, erakunde honen eginkizuna da honako hau:

*“n) Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.*

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

### **KONTUAN HARTZEKOAK**

#### **I.- GIZARTE ZERBITZUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduren 5eko 12/2008 Legearen xedea da *“Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatzea”.*

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren jardura printzipioak honakoak dira: “esku-hartzeen diziplina-artekotasuna” eta “Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa”. Printzipio horiekin bat, III. tituluak arautzen duen sistemaren eskumen, antolamendu, kontsulta eta partaidetzako araubidea ikusita, esan behar da hainbat euskal administrazioek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak) partekatzen duten eskumena dela.

Betalde, datu babesari dagokionez, azpimarratu behar da 9.1 b) artikulua xedatzen duena, berariaz aitortzen duelako gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak konfidentzialtasunerako eskubidea dutela: *“Isilpekotasunerako eskubidea: erabiltzailearen espedientean edo erabiltzailearekin zerikusia duen edozein dokumentutan ageri diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren erabateko errespetuz trata daitezela; hor sartuko da profesionalak gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei buruz jakin dituztenak isilean edukitzeko betebeharra”.*



## II.- KONSTITUZIOAK NOLA ERATU DUEN DATU PERTSONALAK BABESTEKO ESKUBIDEA.

Konstituzioak oinarrizko hainbat eskubide aitortzen ditu I. Tituluan, eraginkortasun juridikoa ematen die eta horietako bakoitzarentzat bermeak ere ezartzen ditu, izaera eta helmen desberdinetako erakunde eta tresnen bidez. Oinarrizko eskubideen artean ez da berariaz ageri datu pertsonalak babesteko eskubidea; baina, 18.4 artikulua zera dio: *“Legeak informatikaren erabilera mugatuko du, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritzea osoa bermatzeko”*.

Konstituzioaren agindu hori da datu pertsonalak babesteko eskubidearen iturburua, eta jurisprudentzia konstituzionalak (guztiaren ordean: azaroaren 30eko 292/2000 KAE) ere oinarrizko eskubide izaera eta eskubide autonomo izaera aitortu dizkio. Gainera, intimitaterako eskubideak baino esparru zabalagoa hartzen du.

Eskubide honek pertsona orori aitortzen dio norberari buruzko informazio fluxuaren gaineko erabateko kontrola izatea, datuen tratamendu automatizatu desagokiak pertsonaren duintasunari eta askatasunei ekar diezaikeen balizko erasoetatik babesteko eskubidea eta horrelako gertakarien aurrean erreakzionatzeko eskubidea.

292/2000 KAE n oinarrizko eskubide honen edukia ere zehaztu du Konstituzio Auzitegiak. Hona hemen:

*“Eskubide hori izateak norberaren datu pertsonalen gaineko boterea izatea eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izatea dakar, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeko: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati, dela Estatu dela partikular bat, eta ea hirugarren horrek datu horietatik zeintzuk bildu ditzakeen; horrez gain, ahalmena ematen dio jakiteko ea datu pertsonal horiek nork dauzkan eta zertarako, eta bere datu pertsonalak inork edukitzearen edo inork erabiltzearen aurka agertzeko ahalmena ere ematen dio. Norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta horien gaineko erabakiak hartzeko boterea datu babeserako oinarrizko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasunek gauzatzen dute juridikoki: datu pertsonalak biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak eta, geroago datu horiekin egiten diren biltegiratzeen eta tratamenduen gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek, dela Estatuak dela partikular batek, datu horiekin egin dezakeen edo ditzakeen erabileraren edo erabileren gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak. Eta inork datu pertsonalak jakin ditzan eta datuen tratamendu informatikoa ala tratamendu ez informatikoa egin dezan baimentzeko gaitasunak ezinbestean behar ditu honako osagarriak: batetik, datu pertsonalak non dauden, nork dauzkan eta zertarako erabiltzen dituen uneoro jakiteko gaitasuna eta, bestetik, datuak hirugarrenek edukitzearen eta datu horiek erabiltzearen aurka egiteko gaitasuna. Beraz, datu pertsonalak babesteko eskubidearen osagai bereizgarrien artean daude ukituak dituen eskubideak bere datu pertsonalak biltzeko eta erabiltzeko baimena emateko eta datuen berri izateko (...)”*  
(7. oinarri juridikoa).

Hona Konstituzio Auzitegiak 13. oinarri juridikoak dioena:

*“Datu pertsonalak biltzeko eta tratatzeko adostasuna (DBLOren 6. artikulua) adierazteko eskubideak ez du esan nahi datu horiek hirugarrenei lagatzeko baimena ere ematen denik; izan ere, norbere datuak hirugarrenei lagatzeko baimena datu babeserako oinarrizko eskubidearen edukiaren barruko ahalmen berezietako bat*



*baita. Eta, beraz, datu horiek ezin zaizkio hirugarren bati laga datu bilketa egin zeneko helburua ez den beste baterako bada, nahiz eta helburuak bateragarriak izan (DBLOren 4.2 artikulua), hori eginez gero, beste batek dauzkalako datuak eta hori beste erabilera bat delako, eta, horretarako, interesdunaren adostasuna behar da. Adostasunaren ahalmenak duen muga bakarra dira konstituzioaren arabera funtsezkoak diren eskubideak eta ondasunak. Beraz, arrazoitua eta proportzionala izan behar du eta legez ezarria, datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideak ez duelako bestelako mugarik onartzen. Bestalde, argi dago interesdunari informazioa eman behar zaiola datuen balizko erabilerari eta inguruabarrei buruz eta datuen destinoari buruz. Izan ere, baldintza horiek bete behar baitira adostasuna adierazteko eskubidea eraginkorra izateko, norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta erabiltzeko eskubidearen funtsezko ahalaria dagokionez. Beraz, ez da nahikoa datu lagatzea zilegi jakitea xedapen batek sortu edo aldatu duelako. Horrez gain, datu lagatze bakoitzari buruzko inguruabarrak ere jakin egin behar dira. Bestela, fitxategiaren arduradunarentzat oso erraza izango zen interesdunaren adostasuna alde batera uztea, eta nahikotzat jotzea bere datuak laga egin daitezkeela esatea. Informazioa jasotzeko eskubideaz modu egokian baliatzea bermatzen duten legezko betekizunak ez balira egongo (DBLOren 5. artikulua), dudarik gabe kaltetuta aterako litzateke interesdunek haien datu pertsonalez baliatzeko eta datu horiek kontrolatzeko duten eskubidea; izan ere, horren eraginez eragozpenak izango litzuketelako oinarrizko eskubide hori osatzen duten beste eskumen batzuez baliatzeko”.*

### **III. ADOSTASUNA.**

Norberaren datuak biltzeko eta erabiltzeko adostasuna adierazteko eskubidea datu babesaren funtsezko elementua da, eta datuak babesteko oinarrizko eskubidearen oinarria da.

DBLO-Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3 h) artikulua eta DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1 d) artikulua adostasuna zer den definitzen dute: *“Interesatuak berari buruzko datu pertsonalak tratatzeko ematen duen baimena, baina askatasunez, zalantzarik gabe, zehaztasunez eta informazioa izanda emandakoa”.*

DBLOren 6. artikulua ukituaren adostasunari buruzkoa da. Hona lehenengo idatz-zatiak dioena: *“Datu pertsonalen tratamenduak interesdunaren adostasun garbia beharko du, legeak besterik xedatu ezean”.*

Eta bigarren idatz-zatiak dio noiz ez den beharrezkoa izango ukituaren adostasuna; eta, txosten honen ondorioetarako, honako salbuespena azpimarratu behar dugu: *“administrazio publikoek euren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak gauzatzeko biltzea datuak”.* Gerora, DBLO garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak osatu egin zuen lege-manu hori eta 10.3 a) artikulua bidez ezabatu egin zuen interesdunaren adostasunaren beharra zegoela honelakoetan: *“a) Datu horiek administrazio publikoek beren eginkizunak aurrera eramateko jasotzen dituztenean, lege mailako arau batek edo zuzenbide komunitarioko arau batek beren esku utzitako eskumenen barruan”.*



Beraz, ez da interesdunaren adostasunik beharko datuak interesdunak berak emanda jasotzen direnean, interesdunak berak hautatutako administrazioaren eskumeneko zerbitzu bat eskatu nahi duelako.

Baina, datu pertsonalak interesdunaren adostasunik gabe tratatzeko, ez da nahikoa administrazioak eskumena izatea; izan ere beste printzipio batzuk ere bete behar dira, adibidez, datu bilketaren helburuarekiko proportzionala izatea. DBLOk xedatzen duenez, horri “datuen kalitatea” esaten zaio.

DBLOk adostasunari buruzko beste eskakizun batzuk ere baditu, esate baterako, adostasunaren adierazpenak askea izan behar duela, norberak nahita, eta informatua, hau da, pertsonak behar beste informazio eduki behar duela, bere datu pertsonalen tratamenduen gainean erabakiak askatasunez hartu ahal izateko.

Informatzeko obligazioa ulertzeko, gogoratu behar da konstituzio auzitegiak eman dion helmenean datu pertsonalak babesteko eskubideari. Aurreko paragrafoan adierazi dugu zer den datuak babesteko eskubidea: “...datu babeserako eskubideak esan nahi duela pertsonen aitortzen zaiela euren datuen gaineko boterea izatea eta datu horien nola erabili eta zertarako erabili erabakitze ere bai, datuen trafiko bidegaberik eta ukituaren duintasunarentzako kaltegarririk egon ez dadin”.

Beraz, adostasuna benetako askatasunaz adierazteko, aldeztatik DBLOren 5. artikuluan aipatzen den informatzeko betebeharra bete behar da.

Artikulu horrek dio, inori datu pertsonalak eskatu aurretik, fitxategien arduradunek informatu egin behar dituztela interesdunak. Hona, zehatz esateko, artikulua lehenengo idatz-zatiak dioena:

*“Interesdun bati datu pertsonalak eskatu baino lehen, ezinbestean eman beharko diote honako hauei buruzko informazioa berariaz, zehatz eta argi:*

*a) Datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu bat dagoela, datuak zertarako biltzen dituen eta informazioaren hartzailleak nor edo nortzuk diren.*

*b) Egiten zaizkion galderak derrigorrez ala borondatez erantzutekoak diren.*

*c) Datuak ematearen edo ukatzearen ondorioak.*

*d) Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera duela.*

*e) Tratamendu kontrolatzailearen edo, hala badagokio, bere ordezkariaren identitatea eta helbidea”.*

Datu tratamenduetan informazioa adostasunaren funtsezkoa alderdia dela ikusteko, DBLOren 11.3 artikulua ere har daiteke kontuan: “*Hirugarren bati izaera pertsonaleko datuak komunikatzeko adostasuna deuseza izango da, interesdunari ematen zaion informazioak ez duenean argi uzten baimendutako komunikaziora bildutako datuek zein xede izango duten edo datuak komunikatu nahi zaizkion subjektuak zein jardueramota duen”.*

Adostasunaren printzipioaz gain, datuak babesteko oinarritzko eskubidearen eraikuntza juridikoaren oinarrian beste printzipio bat ere badago: kalitatearen printzipioa (proportzionaltasuna). Printzipio hori DBLOren 4.1. artikulua arautzen du: “*datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak,*



*bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekin”.*

Adostasuna oso lotuta dago tratamenduaren helburuari, eta, ondorioz, DBLOren 4.2 artikulua zera dio: *“Tratatu beharreko izaera pertsonaleko datuak zein xederekin bildu eta ezin izango dira erabili xede horrekin bateraezinak diren xedeetarako. Ez da bateraezina izango datu horien gainean gerogarrenean egin daitekeen tratamendua, xede historiko, estatistiko edo zientifikoekin”.*

DBLO garatzen duen Erregelamenduak (abenduarien 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak onartua) ere gauza bera dio 8. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatietan:

*“3.- Tratamenduko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako.*

*4.- Tratatu ahal izateko, datuak hasiera bateko helburu zehatzak eta bidezkoak lortzeko egokiak, egoerari dagozkionak eta neurrikoak izan beharko dira, ez gehiegizkoak”.*

Doktrina bat etorri izan da beti gai horri dagokionez. Esate baterako, Antonio Troncosok zera dio Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legeari egindako oharretan (*Comentario a la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal*, Civitas argitaletxea, 2010, 344. orrialdea): *Ez da nahikoa helburua legezkoa izatea: legezkoaz gain, zehatza eta berariazkoa izan behar du. Helburua zehatza izateak esan nahi du helburu zehaztu gabeak eta orokorrak dituzten tratamenduak debekatuta daudela. Helburuak oso orokorrak badira eta edozein xede onartzen badute, ez dira onartuko, nahiz eta helburua legitimoa izan”.*

Gauzak horrela, adostasuna adierazi behar da datu tratamendua egin baino lehen, horrela bermatu daitekeelako datuen titularrak badakiela zertarako erabiliko dituzten datuak, zein eskubide dituen eta zein den datuen fitxategiaren arduraduna.

Beste alde batetik, ezin dugu ahaztu hainbat euskal administrazioek partekatzen dituztela gai honen inguruko eskumenak, CN10-016 irizpenean esan genuenez. Informazioa partekatzeko aukera bat dator koordinatzeko betebeharrarekin, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 43. artikuluan jasota dagoenaren arabera: *“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak elkarrekiko lankidetzak eta koordinazio-betebeharraren arabera jardungo dira sistemak eraginkortasunez eta eragimenez funtziona dezala bermatzeko”.*

DBLOren 11. eta 21. artikuluetan dago jasota zein den datu pertsonalen komunikazioen lege erregimena.

DBLOren 11.1. artikulua honakoa xedatzen du: *“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea”.*

Datuen titularra interesduna denez, berak adierazi behar du adostasuna; eta adostasuna da datu babesaren arloko printzipiorik garrantzitsuena. Beraz, datuak lagatzeko betebeharrak den arau orokorra da interesdunen adostasuna izatea. Horretaz gain, nahitaezkoa da datu komunikazioa lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta egotea.



Edozelan ere, DBLOren 11. artikulua hainbat salbuespen jasotzen ditu, titularren adostasun beharrik gabe, datuak laga ahal izateko, eta horietako bat da: *"Lege batek baimentzen badu lagapena"*.(11.2 a) artikulua).

Era berean, DBLOren 21. artikulua beste salbuespen bat ezartzen du eta administrazio publikoen arteko datu komunikazioetarako erregimen berezia ezartzen du:

*"1- Administrazio Publikoek euren eginkizunak betetzeko bildu edo prestatutako izaera pertsonaleko datuak ez zaizkie komunikatuko beste Administrazio Publiko batzuei, eskumen desberdinak edo gai desberdinei buruzko eskumenak egikaritzeko, salbu eta fitxategia eratzeko xedapenek edo komunikazio horren erabilera arautzen duen lerrun handiagoko xedapenek agindu dutenean komunikazio hori, edo komunikazioaren helburua denean datuak gerogarrenean xede historiko, estatistiko edo zientifikoekin tratatzea"*

*2.- Edozein kasutan ere, komunikazioaren objektu izan daitezke Administrazio Publiko batek beste batentzat lortu edo prestatutako izaera pertsonaleko datuak.*

...

*4.- Artikulu honen 1 eta 2. idatz-zatietan ezarritako kasuetan, ez da beharrezkoa izango lege honen 11. artikulua aipatu ukituaren adostasuna".*

Datuak Babesteko Lege Organikoari dagokionez, funtsezkoa da datuak komunikatzen badira, eskumen bera edo antzeko gaien gaineko eskumena duten administrazio publikoen artean egitea (Erregelamenduaren 10.4 c) artikulua).

Hori ikusita, esan behar da ekipo bakoitzak era askotako datuak tratatuko dituela, eta norbanakoen esparru intimoenari buruzko informazioa ematen duten datuak direla. Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiak babes erregimen berezia ezarri du halako datuetarako (Bereziki babestutako datuak: DBLOren 7. eta 8. artikulua eta 1720/2007 EDren 10. artikulua).

DBLOren 7.2 artikulua agintzen du *"ukituaren esanbidezko eta idatzizko adostasunarekin bakarrik" trata daitezkeela "ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio eta sinismenaren berri ematen duten izaera pertsonaleko datuak"*.

DBLOren 7.3 artikulua xedatzen duenez, honako hauek dira bereziki babestutako datuak: *"Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko izaera pertsonaleko datuak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori"*.

Beraz, osasun datuak, datu sentsibleak izanik, eragin handia dute ukituaren esparrurik intimoenean, eta horregatik, DBLOk izaera orokorrarekin ezarri duena baino erregulazio berezituagoa eta zorrotzagoa ezarri du osasun datuen tratamenduari buruz -zein kasutan egin daitezkeen- eta datuen tratamenduetan segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriei buruz; bai eta osasun datuen tratamenduetan betebeharreko konfidentzialtasun eta zuhurtzia betebeharrari buruz ere; eta, ondorioz, nahitaez bete beharreko araua izango da datuen titularren berariazko adostasuna eskuratzea, datu horiek tratatzeko.

Interpretazio koherentea eginez gero, esan daiteke araudiak modu berezian tratatzen dituela bereziki babestutako datuak, eta, beraz, datu horiek tratatzeko ezin dela ezarri DBLOren 11.2 a) eta e) artikuluetan finkatutakoa; eta, ondorioz, halako datuak tratatzeko, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko dela. Ideologiari, erlijioari eta



sinesmenei buruzko datuak badira (Konstituzioaren 16.2 artikulua), DBLOren 7.2 artikulua oso ondo finkatzen ditu Konstituzioaren mugak. Arrazari, osasunari eta bizitza sexualari buruzko datuak badira, lege batek berariaz baimentzen baditu baino ezingo dira egin tratamenduak, eta legeak ematen duen gaikuntzaren oinarrian interes orokorreko arrazoiak egon beharko dira (DBLOren 7.3 artikulua); eta, horretaz gain, DBLOren 8. eta 11.2 f) artikuluetan aurreikusitako kasuak izan beharko dira.

Ondorioz, esan behar da DBLOren 21. artikulua ez du lege gaikuntzarik ematen, gaikuntza orokorra delako eta ez dituelako berariaz aipatzen bereziki babestutako datuak.

#### **IV.- KONTSULTARI ATXIKITA AURKEZTU DUTEN ADOSTASUN INFORMATUAREN DOKUMENTUA.**

##### **Kalitatearen printzipioa**

Deskribatu dugun lege esparruaren barruan zilegi da gizarte zerbitzuetako prestazioen eskatzaileen datuak arazorik gabe tratatzea, baldin eta titularrek horretarako adostasuna adierazi badute eta adostasunak legezko baldintza guztiak betetzen baditu.

Baina, lehen esan dugunez, adostasuna eta lege gaikuntza ez dira nahikoa edozein datu lagatze justifikatzeko edo baliozkotzeko; eta, horrez gain, ez dute atzipen orokorrak edo indiskriminatuak egiteko biderik ematen, hau da, ezin dira datu bilketaren oinarrian dagoen helburutik haratago joan.

Gauzak horrela, datu tratamenduaren aurretik, interesdunak jakin egin behar du zein datu diren beharrezkoak jasoko duen zerbitzurako, eta zehatz jakin behar du zertarako erabiliko dituzten datuak; eta, hala badagokio, zertarako eta nori lagako dizkioten ere bai. Norberaren datu pertsonalen gaineko boterea izateko eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izateko modu bakarra da hori; eta azken finean, datuak babesteko oinarritzko eskubidearen funtsezko edukia da.

Oso argigarria da Konstituzio Auzitegiaren 17/2003 epaiak dioena:

*“Beste ikuspuntu batetik begiraturaz gero, eta lehenago ere esana dugu, administrazio publikoek bildu eta artxibatzen duten informazioak, legeak esleitzen dizkien ahalez baliatzeko nahitaezkoa izan behar du, eta legeak aurreikusten dituen helburu legitimoetarako egokiak” ((uztailaren 20ko 254/1993 KAE, [RTC 1993, 254], 7. oinarria)). Hau da, administrazioek egiten dituzten datu tratamenduak administrazio horietako bakoitzari dagozkion eskumenen oinarrian dauden interes publikoko helburuen menpe egon behar dute. Hori dela eta, administrazio organoek esleituta dituzten eginkizunak betetzeko behar direnak baino datu gehiago ez dira lagako. Eta garrantzitsutzat jotzen diren datuak arrazoitu egin beharko dira, garrantzi handia duelako bereiztea, ea kasu zehatz baten eta egoera jakin baten gaineko azterketa eta jarraipena den ala erregistro pertsonal batean dagoen informazio guztia modu irekian eta indiskriminatuan ematea den...”*

Azken finean, datuen kalitatearen printzipioa tratamenduaren prozesu osoan bete behar da, eta gizarte zerbitzuetan garrantzi handiko kontua da, maiz bereziki babestutako datuak tratatzen dituztelako. DBLOren 11.3 artikulua ere gogoan hartu behar dugu: “Hirugarren bati izaera pertsonaleko datuak komunikatzeko adostasuna deuseza izango da, interesdunari ematen zaion informazioak ez duenean argi uzten baimendutako



*komunikaziora bildutako datuek zein xede izango duten edo datuak komunikatu nahi zaizkien subjektuak zein jarduera-mota duen”.*

Kontuan hartzen baditugu baldintza guzti horiek eragin handia dutela adostasunean, horrek esan nahi du adostasunari buruzko dokumentuak ere ondo jaso eta adierazi beharko duela biltzen diren datuak zertarako (helburua) erabiliko dituzten. Helburuak bat etorri behar du dagokion administrazio publikoak gaiarekin lotuta dituen eskumenekin, bat etorritik tratamendu operazio zehatz batekin (interesdunak eskatu duen prestazioa); eta helburuaren definizioak ezingo du izan kontsulta eskabidearekin batera aurkeztu dutena bezain orokorra edo zehaztu gabea (“Zure kasuari buruzko informazioa”).

Era berean, datuak laga edo jaso dezaketen esparru edo erakunde zerrenda zabala eta zehaztu gabeegia da (“Zure premiekin zer ikusia dute pertsonak”) eta ez ditu betetzen aipatu ditugun baldintzak. Beraz, ahal den neurrian zehaztu egin behar da zein esparru edo erakunderi laga ahal izango zaizkien datuak edo zeinetatik jaso ahal izango den informazioa.

### **Fitxategia eta fitxategiaren arduraduna**

Datuen fitxategiari buruz ere badago zer esan. Datu babesari buruzko legediak dituen helburuak eta printzipio orokorrak gogoan izanda, egin behar dugun lehenengo oharra da ematen duela jasotako informazioa, alde batera utzita informazioaren jatorria, Gizarte izena duen datu pertsonalen fitxategian bakar batean jasoko direla, gizarte larrialdiko laguntzak izan ezik.

Agentziako Datuak Babesteko Erregistroa kontsultatu dugu eta ikusi dugu Gizarte izeneko fitxategiaren helburua honakoa dela: gizarte gizarte-laguntzaren alorreko prestazioen eta zerbitzuen kudeaketa; eta fitxategiaren ardura duen organoa dela [...].

Erregelamenduaren 5. artikulua fitxategiari eta fitxategiaren arduradunari buruzko definizioak ditu:

*"k) Fitxategia: Datu pertsonalen multzo antolatuta oro, datu horietara irizpide jakin batzuekin iristeko bidea eskaintzen duena, edozein dela ere datu multzo hori sortzeko, biltegitzeko, antolatzeko edo horretara iristeko modua.*

*q) Fitxategiaren edo tratamenduaren arduraduna: Pertsona fisiko edo juridikoa, izaera publiko zein pribatukoa, edo administrazio organoa, bere kabuz edo besteren batekin batera tratamenduaren helburu, eduki eta erabilerari buruz erabakiko duena, nahiz eta materialki egin beharrekoa berak egin ez."*

Titulartasun publikoko fitxategia da eta Erregelamenduak garbi dio fitxategiaren arduraduna nor izan behar den, eta datu pertsonalen tratamenduak egiteko ahala ematen duen eskumenarekin zer ikusi zuzena duela. Legeek udalei esleitzen die hainbat zerbitzu kudeatzea, eta, beraz, autonomiaz eta beren erantzukizunpean erabili behar dituzte beren eskumenak, nahiz eta horiek programatu eta gauzatzekoan gainerako herri-administrazioekiko behar bezalako koordinazioa kontuan hartu behar (TAOLen 7.2 artikulua). halakoetan udalak dira gai honetan egiten diren prestazioei buruzko fitxategien arduradunak, gizarte larrialdietako laguntzekin gertatzen den bezala. Aztertu dugun dokumentuak halakoak jasotzen ditu.

Guk aztertzeko aurkeztu duten dokumentuak lehendabizi egiten duena da adierazi udalak jasotako datuak *“zure kasuari buruzkoak -zuk ematen dizkiguzunak eta beste*



*administrazio publiko batzuetatik edo hirugarrenetatik eskuratzen ditugunak-*” Gizarte izena duen fitxategi batean jasoko dituztela; gero datuak zertarako (helburua) bildu diren dio: kreditu ekonomikoak esleitzeko udalerriei eta mankomunitateei, kexei erantzuteko, estatistikak egiteko eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren esku jartzeko.

Aztertzen ari garen gaiak bereziki babestutako datuak tratatzea dakar, eta halako datuak tratatzean zorrotz ezarri behar dira, batetik, kalitate-helburu printzipioa eta, bestetik, proportzionaltasunaren printzipioa, azken hori egokitasunaren eta oinarrizko eskubidean ahalik eta esku hartze txikiena egitearen irizpidearekin.

Parametro horiek kontuan hartuta, Agentziak uste du datuen kalitatearen printzipioa urratuko dela, udalerriei eta mankomunitateei kreditu ekonomikak esleitzeko, disoziaziorik gabeko tratamendu bat egiten bada, gehiegizkoa delako.

Hala ere, ondorio horrek ez du esan nahi Eusko Jaurlaritzak ezin duenik atzitu datu eta txosten pertsonalik berari dagokion kontrol eta ikuskaritza eginkizunak burutu behar baditu gizarte larrialdietako laguntzei dagokienez (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 60.4 artikulua eta 86.1 k) eta r) artikulua).

Estatistikak egitea dela eta, esan behar dugu ez dela beharrezkoa adostasuna (DBLOren 11.2 e) artikulua), baldin eta datu lagatzeak administrazio publikoen artean egiten badira eta datu lagatzeen helburua bada gero helburu estatistikoetarako izatea. Hala eta guztiz ere, doktrinak eta kontrol agintaritzek uste dute informazioa helburu estatistikoetarako erabiltzeak esan nahi duela dagokion estatistika planean berriaz aurreikusitako estatistika ofizialetarako erabiliko direla.

Horrez gain, ikusita dokumentuak hirugarrenengandik lortutako datuak ere aipatzen dituela, komeni da gogora ekartzea DBLOren 2.3 artikulua dioena; *“Xedapen bereziek eta, hala denean, lege organiko honek modu berezian jasotako xedapenek arautuko dituzte hurrengo datu pertsonalen tratamenduak: b) Estatistika-xedeetarako bakarrik balio dutenak, estatistika-funtzio publikoari buruzko estatuko zein autonomia-erkidegoetako legeriak babestutakoak badira”*.

Beraz, fitxategi pribatuen arduradunek informazioa bidali behar badute estatistika ofizialak egiteko, lege gaikuntza behar da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak eta Euskal estatistika plana onartzen duen dena delako legeak ematen dute gaikuntza, 4/1986 Legearen 10.2 artikulua dioenaren arabera: *“Estatistika bakoitzari buruzko araudiak finkatuko du zeintzuk pertsona edo erakunde dauden nahitaez informazioa ematera behartuta, alde batera utzita pertsona edo entitate horien izaera fisikoa ala juridikoa, publikoa ala pribatua edo nazionalitatea, baldin eta helbidea edo egoitza Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde esparruan badute edo bertan kokatuta badaude”*.

Eta hori guzti hori diogu ahaztu gabe Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 79.6 artikulua dioena, hau da, Euskal estatistika-antolakundea osatzen duten organo eta erakundeek, maila operatiboan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren esku dauden banakako datuak eskuratu ahal izango dituztela estatistika ofizialak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean ezartzen diren baldintzekin eta moduan.



Beste helburu bat da gertatzen diren kexei erantzutea. Horri buruz esan behar dugu kexatzat jotzen bada konforme eta ados ez egotea jasotako prestazioarekin, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 40. artikulua Eusko Jaurlaritzari esleitutako eskumenak aintzat hartu badira, Agentziak uste du ez dela beharrezkoa Gizarte izeneko fitxategian helburu horretarako daturik jasotzea, Jaurlaritzaren eskumen zuzeneko kasuekin lotutakoak izan ezik.

Hala eta guztiz ere, esandako horrek ez du kentzen aukera, herritarrek kexa arrazoituak aurkezten dituztenean Eusko Jaurlaritzan gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko gaian eskumenak dituen sailean, Jaurlaritzari komunikatzen dizkioten edo tratatzea baimentzen duten datu pertsonalak tratatzeko, hain zuzen ere; hala xedatzen baitu Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2003 Legek; izan ere, ez baitu zer ikusirik dagozkion administrazio- edo jurisdikzio-errekurtsoekin.

Azkenik, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemari lagatzea dela eta, esan behar dugu sistema hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatzeko eta hobetzeko tresna dela, sistemaren magnitude nagusien ezagutza eguneratua bermatzen duelako, horretarako, datuen iraulketa etengabekorako beharrezko diren sare eta gailu informatiko eta telematikoen egituratzearen bidez.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 79. artikulua honakoa xedatzen du:

*“1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen multzoaren magnitude nagusien ezagutza eguneratua bermatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak, eskumena duen sailaren bitartez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren abian jartzea, iraunaraztea eta eguneratze etengabekoa diseinatuko eta bermatuko ditu, datuen iraulketa etengabekorako beharrezko diren sare eta gailu informatiko eta telematikoen egituratzearen bidez.*

*2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiekiko eta udalekiko koordinaziorako duen eskumena erabiliz jardungo da, bai eta erakunde pribatuekin ere, dela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari jarduten dutenean, dela han jarduten ez dutenean.*

*3. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa beteaz, foru-aldundiek eta udalek, bai eta erakunde pribatuak ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari integratutako zerbitzu eta prestazioen mailen segimendua eskaintzeko informazio gaurkotua eta beharrezko datuak igorriko dizkiote Eusko Jaurlaritzari gizarte-zerbitzuen arloko eskumena duen sailari, Prestazio eta Zerbitzuen Karterari aurreikusitakoari erantzunez; hartara, orobat zaindu ahal izango du zerbitzu eta prestazio horiek zenbateraino egokitzen zaizkien Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendu orokorrak gizarte-zerbitzuen plangintzaren eta programazioaren inguruan ezartzen dituen eskakizunetara. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak gizarte-zerbitzuen horniketari buruzko dokumentuak, datuak eta txostenak, bidezko geratzen direnak, eskuratu ahal izango ditu. Informazio hori bildu, baliatu eta erabiltzeko orduan, datu pertsonalak babestearen arloko araudiak aurreikusitakoari jarraituko zaio.*

*4. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek eta 2. paragrafoan aipatzen diren erakunde pribatuek, gainera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren funtzionamendu onerako eta etengabeko eguneratzerako beharrezko den informazioa bidali beharko dute, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan eta aldizkakotasunekin. Jarduera itundu edo hitzartuei buruzko informazioa, kasuan kasuko zerbitzuaren eta prestazioa bete behar duen administrazio arduradunak igorriko du. Itun, kontratu edo hitzarmenen esparruan jarduten ez duten erakunde*



*pribatuen kasuan, lankidetzako betebeharrak hori zuzenean funtzionamenduko baimenetik ondorioztatzen da.*

*5. Eusko Jaurlaritzak, gizarte-zerbitzuetan eskumena duen sailaren bitartez, txostenak egin ahal izango ditu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta sistema horren garapeneko eta ezarpeneko mailaren inguruan jasotako informazioan oinarrituz, eta informazio hori Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari jakinaraziko die.*

*6. Euskal estatistika-antolakundea osatzen duten organo eta erakundeek, maila operatiboan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren esku dauden banakako datuak eskuratu ahal izango dituzte, estatistika ofizialak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean ezartzen diren baldintzetan eta moduan. Nolanahi ere, estatistika ofizialak egiten direnean, generoko ikuspegia modu eraginkorrean integratzea bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatzen den moduan”.*

Horrekin lotuta, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 40.7 artikulua dio Eusko Jaurlaritzak honako eginkizuna duela: *“Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema diseinatzea eta mantentzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri-administrazioekiko koordinaziorako duen eskumena erabiliz. Kontua da sistemaren alderdi nagusien tamainaren berri eguneratua izatea eta gizarte-zerbitzuen plangintza koherentea eta egokia ote den jakitea. Diseinu- eta mantentze-lan horretarako baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira”.*

Bestalde, 79. artikulua hiru artikuluen idatz-zatiak dio foru-aldundiek eta udalek, bai eta erakunde pribatuak ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren integratutako zerbitzu eta prestazioen mailen segimendua eskaintzeko informazio gaurkotua eta beharrezko datuak igorriko dituztela Prestazio eta Zerbitzuen Karteran aurreikusitakoari erantzunez; bai eta ikustea ere prestazio horiek zenbateraino egokitzen zaizkien Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendu orokorrak gizarte-zerbitzuen plangintzaren eta programazioaren inguruan ezartzen dituen eskakizunetara.

Era berean, 79.3 artikulua bukaerako zatian dio Eusko Jaurlaritzak gizarte-zerbitzuen horniketari buruzko dokumentuak, datuak eta txostenak, garrantzitsuak direnak, eskuratu ahal izango dituela, eta informazio hori bildu, baliatu eta erabiltzeko orduan, datu pertsonalak babestearen arloko araudiak aurreikusitakoari jarraituko zaiola.

Artikulu horrek dioena garbi geratzeko, Konstituzio Auzitegiaren doktrinak koordinazio ahalari buruz dioena hartu behar da kontuan; izan ere, doktrinaren ustez, koordinazioak ez baitu esan nahi erakunde koordinatuei kendu egin behar zaizkien beraiei dagozkien eskumenak, eskumenak baliatzean mugak jarri behar direla baizik (otsailaren 27ko 27/1987 KAE, 5. oinarri juridikoa).

Koordinazio ahalak zer ikusi estua du eskumen arauemailearekin, baina, koordinazio ahalaren titularrari ez dio aitortzen berez ez dagokion eskumenik, nahiz eta nolabaiteko zuzendaritza-ahalmena dakarren, koordinatzen duena koordinatuaren gainetik dagoelako (abenduaren 10eko 194/2004 KAE).

Testuingurua ikusita, 79.3 artikulua bukaerako zatian dio Eusko Jaurlaritzari datuak atzitzeko aitortzen dion aukera ulertzeko, kontuan hartu behar da aukera hori Jaurlaritzak honako helburuarekin duen koordinazio ahal baliatzeko aukera dela: Gizarte Zerbitzuen



Euskal Sistema (Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 6. artikulua) eta EAEko Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko eta Karterako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak. Gainera, artikulua horrek dioenez, era horretako informazioa bildu, ustiatu eta erabiltzeko datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia bete beharko da.

Esandako guztia kontuan hartuta, pentsatu behar da datu-atzipena tratamenduaren helburuari eta informazioa biltzen duen organoak duen eskumenari lotuta dagoela, eta, beraz, artikulua horrek aurreikusten duen datu atzipenak ez du gaikuntzarik ematen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileen edozein datu atzitzeko. Eta ukituaren adostasunari buruzko dokumentuan jasotzen den adostasunak ere ez du gaitzen halako datuen transmisioak egiteko.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak ere honakoa adierazi zuen 97/2008 Irizpenean: *“Datuak eskuratzeko aukera horrek –gogora bedi ezarrita dagoela datuak bidaltzeko beharra, erregelamenduz zehaztuko den era eta maiztasunarekin, baita sistemaren helburua ere, alegia, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen multzoaren magnitude nagusien ezagutza eguneratua bermatzea- neurritz kanpoko ematen du, eta, bere zabalean, nekez uztartu daiteke pertsona bakoitzak bere datuak kontrolatzeko duen eskubidearekin, datu horiek ezin direlako erabili datuok eskuratzeko justifikatu zuen helburu zilegiak bestelakoetarako (horrenbestez, datu-eskuratze hori datu-lagatzea izango litzateke, materialki)”*.

Baina, ikusi dugun araudiaren argitan, badirudi zilegi dela aplikazio informatiko instrumentalak eta zentralizatuak egitea, eta udalek sarbidea izatea aplikazioan. Baina, korporazio bakoitzak izan beharko du korporazioak esleituta dituen gizarte zerbitzuak emateko helburuarekin dituen datu pertsonaldun fitxategien arduradun bat. Halako fitxategiek Datu Pertsonalak Babesteko Euskal Bulegoaren Datu Pertsonalen Fitxategien Erregistroan deklaraturik egon beharko dute, eta aplikazio informatikoa tresna bat baino ez da izango, legeek, gizarte zerbitzuak emateko, udalei esleitzen dizkien eskumenei dagokienez.

Bestalde, komeni da adieraztea helburuaren printzipioak fitxategian sartzeko sarbide mailak ezarri beharra dakarrela, eta, horren ondorioz, arduradunek aplikazioan iraultzen duten informazioaren titularrak fitxategi-arduradunak dira, eta Jaurlaritzak ez du eskubiderik informazio horren gainean, lege ezarritakoa baino harantzago.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 2a